



Basagutxia (-a) *etxebizitza*

Aldacrak: Basagutxiganekoa / Basagutxigoikoa
Ahozkoa: Basóitxi



43° 10' 58"

2° 35' 23"

Berriz Iruditan / T. Angoitia

“... una casería llamada *Basaguchiganekoa*... en la cofradía o barriada de Andicon de la anteiglesia de Berriz, es de dos viviendas y se compone de piso bajo con portalada, y principal; ocupa con la planta del horno noventa y tres y medio estados, equivalentes a tres áreas y cincuenta y seis centiáreas...”
DJE 5/163 or. (1886)

Baserri honen gaineko lehen aipuak XVII. mendean aurkitzen ditugu: *Vassaguchia* eta *Basaguchia* (1650, JCR 0763/016). Bizkaiko su-erroldean ere, haren berri topatu dugu; baina, kasu horietan, *Basaguchia de Suso* (1704) aipua aurkitzen dugu, azpiko edo aurreko aldean dagoen *Basagutxibeaskoa* baserritik (**Ikus Basagutxibeaskoa**) bereizteko. 1825ean egindako polizia-errolan *Basaguchia ganekoa* (PE/1825) aurkitzen dugun bitartean, 1859an Udalak eginitako izendegian *Basaguchias* moduan agertzen dira baserri hau eta horren ondoan dauden *Basagutxibeaskoa* eta *Basagutxietxebarria* (**Ikus Basagutxietxebarria**). XIX. mendearen bigarren erditik aurrera, dokumentu gehienetan *Basaguchiganekoa* (1886, DJE, 5/ 163. or.) eta *Ba-*

saguchi Ganekoa (1905, BUA, 40) erak nagusitzen dira. Auzotarren artean, *Basóitxi* forma da erabiliena ahozko komunikazioan.

Argazkian ikusten den baserria gaur egun ez dago bere horretan. Berriztatze prozesuaren ondorioz, behealdeko harrizko gorputzak baino ez dituzte gorde. Hala ere, kontserbatzen ditu baserri zaharraren hainbat elementu. Hasteko, etxearen tankera, hainbatetan aipatu dugun hiru gorpuzduna. Erdian, egurrezko dinteldun atarte zabala. Eta aldamenetan, ohiko harrizko gorputzak. Bereziarena, XVI. mendeko hormak gordetzea da, silarri luzenak erabilia, eta leihoen moldurak ere bai. Beste horma guztiak ere harrizkoak dira, harlanduzkoak izanik kantal eta leihoen ertzak.

toponimia

Izen hau gaur egun sortuko bagenu Basotxikia esango genuke Gutxi garai batean txiki esateko erabiltzen baitzen. Araban, esaterako, Miñano Menor herriaren euskal izena Miñaogutxi da. Hitz konposatuetan, euskaraz, ohikoa da -o>-a aldatzea (pagadi, basakatu...) eta horregatik ageri da basa.